

Hizkuntza gutxituak komunikazio espazio nazionalen aldaketen aurrean

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VII. Edizioko
HIRUGARREN SARIA (2014)

Josu Amezaga

NOR Ikerketa Taldea, UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

josu.amezaga@ehu.es

Sarrera-data: 2014-10-31 / Onartze-data: 2014-11-28

Laburpena. Hizkuntza gutxituaren kontzeptua bera, nazio estatuaren eraikuntzari lotuta dago. Izan ere, zenbait autoreren iritziz, estatu nazioaren eraikuntzatik baztertuak suertatu izanak bilakatu ditu hizkuntza asko gutxitu. Nazio estatua, bestalde, ez dago ulertzerik komunikazio espazio nazionalak ulertu gabe, espazio horretan birsortzen baitira nazio nortasuna, nazio kultura, edota nazio hizkuntza bera. Hau horrela izanik, bistan da komunikazio espazio nazionaletan gertatzen ari diren aldaketa sakonek (gertaera sozioekonomiko, politiko zein teknologikoen ondorioz) eraginik izango dutela nazioan; eta, ezinbestez, hizkuntza gutxitutzat ditugun horietan. Aldaketa horiek aztertu, bereziki komunikazioaren transnacionalizaziotik aztertu dira. Horietara joko dugu beraz, gurea bezalako hizkuntza gutxituek aurrean aurkituko duten errealitatea gogoetatu eta hobeto ulertu ahal izateko. • *Hitz-gakoak:* *hizkuntza gutxitua, komunikazioa, nazio estatua.*

Abstract. The very concept of lesser-used language is linked to the building of the nation state. In fact, according to a number of authors, many languages have turned into lesser-used ones after having ended up excluded from the building of the nation state. Yet the nation state cannot be understood without understanding national spaces for communication, because the national identity, national culture or national language itself are recreated within that space. That being the case, it is clear that the far-reaching changes taking place in the national space for communication (as a result of socioeconomic, political and technological events) will be exerting an influence on the nation, and inevitably on what are regarded as lesser-used languages. These changes have been analysed from the transnationalisation of communication, in particular. So we will be taking a look at them so that we can reflect on and better understand the reality in which lesser-used languages like ours find themselves in. • *Key words:* *Lesser-used language, communication, nation state.*

SARRERA

I

Komunikazio espazioa, fisikoa izan edo ez, pertsonak elkarren artean komunikatzen diren lekua bada, begi bistan dago berebiziko gunea dela hizkuntzen birsorkuntzarako zein hizkuntza gatazkarako. Pertsonak maila ezberdinetan komunikatzen garela kontuan hartuta, aldi berean komunikazio espazio ezberdinetan murgilduta gaudela esan ahal dugu: horietako batzuk aurrez aurreko harremanetan gauzatuak, beste batzuk komunikazio egitura tekniko zein sozial oso konplexuen bitartez burutuak. Hizkuntzen dinamikei dagokionez, esan gabe doa komunikazio espazio nazionalak —alegia estatu nazioaren inguruan antolatuak— garrantzi handikoak izan direla, eta oraindik badirela, hizkuntza askoren indartze, ahultze edo are desagertzean. Historiaren ebidentziak erakusten digu komunikazio espazio nazional batean hegemonia lortu duten hizkuntzek, oro har, lortu ez dutenek baino indar handiagoa hartu dutela. Areago, hizkuntza gutxituen izaera bera estatu nazioaren eraikuntzatik baztertu izanaren ondorio gisa uler dezakegu: bazterketa horrexek bilakatu ditu gutxitu (Cormack eta Hourigan 2007). Epe luzera, gainera, komunikazio espazio nazionalen gertatzen den hizkuntza gatazkak beste espazio eta maila batzuetan gertatzen dena baldintzatzen du neurri handi batean: espazio hurbilenetatik urrunetaraino. Txepetxek hizkuntza bati aitortzen dizkion eginkizunen mailaketan (Sanchez Carrión 1987), nazio hizkuntzak maila guztiak okupatzera jotzen duela esan dezakegu, kasu gehienetan.

Nazioaren eraikuntzan bezala, komunikazio espazio nazionalen eraketan ere izan da estatuaren lehen mailako eragilea. Berea duen lurraldea kontrolpean duela, komunikazioaren arloan bere ekimen propioa aurrera eramateaz gain (komunikabide publikoen bitartez), besteen ekimen pribatuen arautzailea ere izan da. Adi berean, merkatu nazionalak, estatuaren itzalpe eta babesean sortua, espazio nazionalari egokitutako komunikabide sistema bat birsortu du. Horrela komunikazio espazio nazionala izan da estatuak bere hizkuntza, kultura eta nortasuna ezartzeko jorratu dituen bide garrantzitsuenetako bat —beste batzuekin batera: eskola, armada eta legedia nagusiki—.

Gaur egun aldaketa nabarmenak gertatzen ari dira estatuak bere molde bereko komunikazio espazioa eratzeko duen gaitasunari dagokionez. Modu generikoan globalizazio deitzen dugun fenomeno multzoari lotutako joera sozioekonomikoak (komunikazioen desarautze eta transnacionalizaziotik hasita migrazio jarioetaraino), bai eta informazioaren teknologien bilakaeratik eratorritzen diren aldaketak (satelite zein internetetik hasita komunikazio mugikorretaraino), zera eragiten ari dira:

**Historiaren
ebidentziak
erakusten digu
komunikazio
espazio nazional
batean
hegemonia lortu
duten
hizkuntzek, oro
har, lortu ez
dutenek baino
indar handiagoa
hartu dutela.**

egun komunikazio espazioak, oro har, gero eta gutxiago daudela lurralde fisikoari lotuta. Hartara, estatuak lurraldearen gainean ezartzen duen kontrolak gero eta gutxiago berma dezake komunikazio espazio bakar, homogeen eta baztertzaileren birsorkuntza. Aldi berean espazio nazionalen gertatzen denak hainbeste baldintzatzen eta mugatzen ez dituen komunikazio espazio berrien sorkuntza gertatzen ari da gure begien aurrean. Azken urteetan fenomeno hauen inguruan pilatzen ari den bibliografia ugariak halaxe erakusten du, edozein delarik gehien azpimarratzen den alderdia: transnazionalismoa, komunitate birtualak, eta abar luzea.

Mike Cormacki jarraituz aintzat hartzen badugu hizkuntza gutxiak komunikazio espazio nazionaletik baztertuta geratu izanak bihurtu dituela gutxitu, oso adi egon behar dugu espazio horretan gertatzen ari diren aldaketei. Horrela hobeto ulertuko dugu hizkuntza hauek jadanik aurrean duten panorama. Horixe da hain zuzen artikulu honen azken helburua, alegia: komunikazio espazio nazionalerako aldaketek hizkuntza gutxituen orainaldi eta etorkizunean izan ditzaketen inplikazioetako batzuk aztertzea, arreta berezia jarri lurralde zehatz batean bizi diren hizkuntza gutxituei.

Horretarako, baliabide metodologiko gisa, bereziki migrarien hizkuntza gutxituen arloan azken urteetan garatzen ari diren ikerketei erreparatuko diegu. Izan ere IML / RML (*Immigrant Minority Languages / Regional Minority Languages*, azken hauek lurralde zehatz batean bizi diren hizkuntza gutxiak izanik) bereizketa ontzat hartzen badugu (Extra eta Yagmur 2004), eta komunikazioan gertatzen ari diren aldaketek hizkuntza komunitateei nola eragiten dieten aztertzen duten lanei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu ikerkuntza oparagoa dela lehen multzoko hizkuntzen inguruan bigarren multzoko inguruan baino. Batzuk eta besteak oso fenomeno sozial ezberdinak direla badakigu jakin (Amezaga eta Arana 2012). Alabaina, erakutsi nahi dugun moduan, populazio migrari eta diasporikoak komunikazioko eraldaketei nola aurre egiten ari diren aztertzen duten zenbait ekarpen, baliagarri izan daitezke —batzuetan ispilu gisa erabiliz— normalean hizkuntza gutxitu erregional edo autoktonotzat izan ditugun horiekin gertatzen ari dena, eta gerta daitekeena, gogoetatzeko.

Asmo horrekin abiatzen da artikulua, lehenik estatu nazioa komunikazio espazio gisa historian zehar nola osatu den laburki aztertuz. Horren ostean komunikazio transnazionalari buruz egin diren zenbait analisi arakatuko ditugu, gertatzen ari diren eraldaketak ikusteko; eta ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara, hizkuntza gutxituentzat izan

ditzaketen inplikazioak ulertzeko, arreta berezia jarritz euskararen inguruko gogoetaren pizgarri izan daitezkeen ekarpenei.

NAZIOA KOMUNIKAZIO ESPAZIO GISA

I

Sei hamarkada joan dira Karl W. Deutschek komunikazioaren eta nazio nortasunaren eraikuntzaren arteko harremana azaleratu zuenetik (Deutsch 1953). Giza talde batek partekatzen dituen esperientzia batzuen inguruan komunikatzen denean sortzen da nazioa Deutschen aburuz. Komunikazio mota hori eraginkorragoa da kanpokoekin egiten dena baino, partekatzeak sortzen duen konfiantza dela medio. Horrela ulertuta, partekatutako eta komunikatutako esperientziak daude komunitatearen oinarrian, eta ondorioz nazioaren azpian, hizkuntza bera baino areago. Izan ere, beranduagoko lan batean esan zuenez (Deutsch 1969), talde batzuek hizkuntza partekatzen dute baina esperientzia ezberdinak dituzte (Suitzako eta Alemaniako alemaneradunak, adibidez); beste batzuek aldiz komunitate nazional eleanitzak osatzen dituzte (suitsarrak). Benedict Anderson izango da, beranduago, hizkuntzari garrantzi handiagoa emango diona (Anderson 1983). Egile honentzat, populazio handiek hizkuntza estandarizatu batean idatzitako prentsa edo literatura partekatzen dituztenean —kapitalismo inprimatuaren eraginez— sortzen da nazio nortasunaren oinarrian ezarriko den esperientzia. Modu batera edo bestera izan, egile biek ematen diote garrantzia esperientzia batzuk komunikabideen bitartez partekatzeari, nazio nortasunaren sorkuntza ulertzeko (Schlesinger 2000).

Jurgen Habermasek beste osagai bat ekarriko digu gogora, nazioa komunikazio espazio gisa sintetizatzeko baliagarria: eremu publikoaren kontzeptuaz ari gara noski (Habermas 1962). Eremu hau banakoen zein taldeen arteko eztabaida arrazionalerako espazioa da, zeinean guztioi dagozkigun auziak eztabaidatzen, interes ezberdinak erkatzen, eta gizarte mailan ekintzak koordinatzen baitira. Honek egitura politiko baten existentzia eskatzen du, eztabaidatik sortutako ebazpenak gauzatu ahal izateko. Habermasentzat komunikabideak dira, XIX. mendetik aurrera, eremu publikoaren euskarri nagusia. Kontzeptu hau oso erabilia izan da azken hamarkadetan, eta oraindik ere bada, bereziki komunikabideen transnacionalizazioari buruzko ikerketen arloan. Kritika ugari ere jaso ditu: batzuek lehen prentsa burgesak ekarri zuen eztabaida arrazionalaren idealizazioa leporatu diote filosofo alemanari; beste batzuek eremu publikoaren generoko sesgoa —emakumeen bazterketak eraginda— ahaztu izana aurpegiratu diote. Kritikak kritika, kontzeptua oraindik ere baliagarria

**Sortze beretik
oso arduratsu
jokatu du estatu
nazio europarrak
bere
komunikazio
espazioa
gordetzeari
begira, beti ere
bere zilegitasuna
indartu nahian.**

Globalizazioak ez ditu soilik herrialde ez aberatsetako edota aberats baina ez anglosaxoietako kultur eta komunikazioak ukituko; aitzitik, kultur potentzia handiak ere ukituko ditu.

dela uste dugu guk, komunikazio espazio nazionaletan geratzen ari diren aldaketak ulertzeko, eta beraz hizkuntza gutxituen dinamiketan gerta litezkeenak ulertzeko ere. Izan ere eremu publikoko eztabaida hizkuntza batean edo bestean burutzen baita. Kontzeptu honi dimentsio berria eman zion James Curranek, eremu publikoa soilik 'politikoa' —modu ertsian ulertuta— ez dela argituta, eta komunikabideetako aisialdirako edukiak ere kontuan hartu behar ditugula aldarrikatuta (Curran 1991). Izan ere azken hauek ere 'politikoaren' barnean sartzen dira, gizarteko botere harremanetan txertatuta baitaude (harremanok bizitzaren arlo guztietan agertzen direlarik: lanean, kultuan, etxean, e.a.). Horregatik, Curranek dioenez, eduki horiek eremu publikoaren osagai dira. Ñabardura garrantzitsua inondik ere, komunikabideak (elektronikoak bereziki) gero eta gehiago aisialdiari lotutako edukiak hedatzera jotzen duten garaian.

Sortze beretik oso arduratsu jokatu du estatu nazio europarrak bere komunikazio espazioa gordetzeari begira, beti ere bere zilegitasuna indartu nahian. Hala izan zen Frantziako Iraultzan, Segurtasun Publikorako Batzorde iraultzaileak bere kontrolpeko lurraldean bizi ziren herritar guztiek elkar ulertu ahal izateko gutxieneko oinarriaren beharra planteatu zuenean; hori ezinbestekoa baitzen estatu berriak beharrezkoak zituen balioak finkatzeko:

Le fédéralisme et la superstition parlent bas-breton ; l'émigration et la haine de la République parlent allemand ; la contre-révolution parle l'italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur. (...) Pour nous, nous devons à nos concitoyens, nous devons à l'affermissement de la République de faire parler sur tout son territoire la langue dans laquelle est écrite la Déclaration des droits de l'Homme (Barère-de-Vieuzac 1794).

Batzordearen irizpideen izaera demokratikoaren inguruko gogoetetz harago, zalantzarik ez da orduan planteatutako arazoak, oraindik orain, bizirik dirauela (ikusiko dugun moduan, multikulturalismoaren defendatzaile sutsuenen artean ere). Eta arazoa honakoa da: nola eratu oinarri komuna —kasu honetan lurralde eta hizkuntza oinarria— nazio komunitate bateko kideen arteko komunikazioa gauzatu ahal izateko.

XIX. mende osoan eta XX. mendearen lehen erdian zehar estatu nazioak —hala lehendik zetozenak nola sortzen joan direnak— komunikazio espazio propioa eratzeko oinarriak jartzen ahalegindu dira. Alde batetik estatuaren parte hartze zuzena erabili dute, komunikabide publikoen jabetzaren bitartez; zenbait kasutan —Europako irrati eta telebistaren kasuan, denbora luzez— monopolioa ezartzeraino. Beste aldetik komunikazio jardueraren arauketaren bitartez —inprimatzeko baimenak,

irratifrekuentzietako emakidak, komunikazio legeak, e.a.—. Are, satelitearen garaian, teknologia hori baliatuz lurraldearen leku hurbilgaitz eta sakabanatuetara iristeko eta nazio osoa komunikazio espazio bihurtzeko euskarria jartzeko (Amezaga 2004). Esku hartze zuzen honekin batera, ondasun eta zerbitzuetako merkatuaren arautzaile izateak, edo hizkuntza ofiziala arlo ezberdinetan ezartzeak (administrazioa, eskola, e.a.), eragin dute komunikabide sistemak estatu nazioari erabat egokitutako komunikazio espazioa eratzea.

Komunikazio espazio propioa eratu eta babesteko interes hau nabar-menago bilakatu da XX. mendearen bigarren erdian; hain zuzen mehatxuak agerikoagoak izan direnean. Horrela, *kultur inperialismoaren* salaketa (Schiller 1976), *Komunikazioaren eta Informazioaren Nazioarteko Ordenu Berriaren* aldarrikapenak (MacBride 1985), zein 80ko hamarkadako herrialde azpigaratuetako komunikazioari buruzko ikerkuntza oparoak (Martin Barbero 1987) agerian utzi zuten, unean unean, herrialde ez aberatsen kezka, herrialde aberatsetatik (berezi anglosaxoietatik) zetozen kultur eta komunikazio jarioek beren espazio propioentzat suposatzen zuten mehatxuaren aurrean. Urte batzuk beranduago zabaldu egin zen beldurra, kasu honetan beren espazioa modu arrakastatsuan ustez finkatuta zeukaten herrialde batzuetara; hauek beren segurtasuna ere ikusi baitzuten mehatxatuta, planeta mailako kultur eta komunikazio jarioak hartzen ari ziren tankera dela eta. Horrela, globalizazioari atek erabat ireki eta *Munduko Merkataritza Erakundea* sortarazi zuten GATTen hitzarmenaren inguruko negoziazioetan, 1995an, Frantziak ahotsa altxatu zuen, beldur horren erakusgarri. Eta nolabaiteko arrakasta izan zuen ezin uka, orduan aldarrikatu zuen *kultur salbuespena* —hitzartutako kapital, ondasun eta zerbitzuen trafiko global libretik kultur produktuak salbuesteko estatuari eskumena ematea— onartua izan baitzen, beste estatu nazio batzuetatik zetozen kultur jarioei nolabaiteko trabak jarritz. Hamarkada bat beranduago, UNESCOk berak berretsi zuen salbuespenerako eskubide hau, zeina ekonomiaren oso sektore estrategiko gutxitan onartua baita, bidenabar esanda.

Komunikazioan eta kulturaren gertatzen ari ziren aldaketek ordea are harago jotzen zuten. John Tomlinsonek, kultur inperialismoaren kontzeptuaren kritikan, honako ideia aurreratu zuen duela hogeitun urte: globalizazioak ez ditu soilik herrialde ez aberatsetako edota aberats baina ez anglosaxoietako kultur eta komunikazioak ukituko; aitzitik, kultur potentzia handiak ere ukituko ditu: *‘the effects of globalization are to weaken the cultural coherence of all individual nation-states, including the economically powerful ones - the “imperialist powers” of a previous era’* (Tomlinson 1991).

Hots, estatu nazio bateko biztanleak, komunikabideek sortutako kultur sareei esker, aldi berean komunitate nazional ezberdinei atxikitzen zaizkien modu berean, aldi berean ere kultura ezberdinetan bizi diren pertsonen errealitatea deskribatzeko balio du transkulturalitatearen kontzeptuak.

Herrialde aberats eta kulturalki indartsuetako ‘kultur koherentzia’ nola eraldatzen ari den, bai eta horren aurrean sortzen ari diren erreakzioak, hurrengo atalean aztertuko ditugu.

ESPAZIO NAZIONALEKO ALDAKETAK

Denborak arrazoia eman dio Tomlinsoni, gure ustez, herrialde indartsuenetako kultur eta komunikazio espazioen integrazioari dagokionez. Datu bat: AEBn, 1980an, populazioaren %11k egiten zuen etxean ingelesa ez den hizkuntza bat; 2007an, %20 ziren; eta horien %90ak beren hizkuntzako emanaldietarako sarbidea zuten, satelite bidezko telebistari esker (Amezaga 2011). Gauza bera pentsa daiteke, herrialde horietako estatuak arazo gisa definitzen duten horren aurrean ematen ari diren erantzunak behatzen baditugu. Alde batetik nazionalizatzeko politikari emandako bultzada aurkitzen dugu kasu askotan, orain arte asmo horrekin egindako guztia gutxiegi izan bailitzan. Adibide grafikoena Frantziakoa izan liteke berriz ere, 2007 eta 2010 artean indarrean jarri zuen *Ministère de l’Immigration, de l’Intégration, de l’Identité nationale et du Développement solidaire* delakoarekin —askoren harrigarri bere plan-teamenduen gardentasunagatik—. Apur bat disimulatuagoa baina ez eragin txikiagokoa da estatu askotan (horien artean Europako Batasuneko 28etatik 24tan, Australian, AEBn, edo Kanadan) zabaltzen ari den joera: egoitza, herritartasuna, edota bestelako oinarrizko eskubideak errespetatuak izateko hizkuntza ofizialaren zein kultura nazionalaren ezagutza frogatzeko azterketa bat gainditzea eskatzea (Extramiana eta Van Avermaet 2008; Hargreaves 2010; Slade eta Möllering 2010).

Potentzia handietan beren kultur eta nortasun espazioarentzako —hots, komunikazio espazioarentzako— mehatxu gisa antzematen denaren beste erakusgarri bat multikulturalismoaren politika da (Kymlicka 2001), zeina, paradoxikoa izan arren, aipatu ditugun moduko neurri nazionalizatzaileen eskutik etor baitaiteke. Alemaniak berak ere aldatu egin zuen herritartasuna emateko irizpidea *ius sanguini*-tik *ius soli*-ra 2000an, multikulturalismoaren politikara apur bat hurbilduz (Möllering 2010); hala azaltzen zuen bederen Angela Merkelek, handik hamar urtera politika berriaren mugak ia modu desesperatuan salatuz “*multikulturalismoa hil egin dela*” aldarrikatu zuenean, hamar urte lehenago James Cameronek esandakoak berretsiz (BBC 2011; The Guardian 2010).

Multikulturalismoa nazioaren barneko aniztasuna kudeatzeko politika mota bat da, aniztasuna jadanik ukazina den tokietan. Ez da, honez gero, XX. mendean migrari uholde handien hartzaile izan diren

herrialdeetako kontua (Australia, AEB, Kanada), eta gero eta gehiago planteatzen ari da aniztasuna hazten doan testuinguruetan; eta aniztasuna herrialde aberats guztietara hedatzen ari da. Ez dugu ahaztu behar ordea bere formulazio jatorrizkoenetan ere —Will Kymlicka kasu— politika multikulturalek gutxieneko partekatu batzuk eskatzen dizkiela lurraldeko biztanleei, hizkuntza izanik oinarrikoenetako bat (Mackenzie 2010).

Maila politikotik akademikora igaroz, ugariak dira azken hamar kadetan komunikazio espazio nazionalen eraldakuntzari buruz egin diren ekarpenak. Ez da gure asmoa hemen haien sintesi orohartzaile bat egitea. Alabaina batzuk aipatu beharrekoak dira gure lanaren testuinguruan, eta haien artean dago *espazio geolinguistikoa* (Sinclair, Jacka, eta Cunningham 1996). Kontzeptu hau satelite bidezko komunikazioaren azterketatik proposatu zen, eta zera azpimarratzen du: lurraldean baino gehiago, emanaldien hizkuntzan oinarritzen diren espazioak egon badaude. Zinez kontzeptu interesgarria, batetik komunikazioa eta lurraldea deslotu egiten dituelako; eta bestetik komunikazio modu berriek (oinarri teknologikoa dutenak baina interes ekonomiko eta politikoei erantzuten dietenak) espazio berri horiek eratzeko euskarri edo oinarria ematen dutela azpimarratzen duelako. Duela hamarkada bat egin genuen kontaketa batean (Amezaga 2007) argiro azaltzen zen jadanik talde diasporikoek, zeuden tokian egonda, beren hizkuntzazko emanaldietara sartzeko aukera, anekdotikoa ez, baizik oso hedatutako aukera zela. Hura egia bazen garai hartan, gaur egun, ADSL bidezko eta komunikazio mugikorrek aukerarekin, fenomenoak are zabalagoa da.

Mota ezberdinetako emanaldi transnazionalen bitartez (Chalaby 2005) jatorrizko edo erreferentziazko hizkuntzaz mintzo diren hedabide eta edukietara sartzeko aukera hau, komunikazio espazio nazional homogeneoaren ideia kolokan jartzen duten faktoreetako bat da. Beste bat, zalantza barik, migrazio jarrioren hazkundera da, bereziki herrialde aberatsenetara zuzentzen diren kasuetan (United Nations 2013). Bien arteko konbinazioak batzuek *transnazionalismo* gisa —alegia komunitate nazionalen birsorkuntza, estatu nazioaren lurraldeaz harago— definitzen duten fenomenoak sortarazi ditu (Vertovec 1999).

Komunikazioaren transnazionalizazioa estatu nazioen komunikazio panorama eraldatzen ari den honetan, bi erreferente teoriko nagusi ekidinezin bilakatu dira arlo honetako lan akademikoetan. Lehena *irudikatutako komunitateena* da, jadanik aipatutako Andersonena. Kontzeptu honek balio handia du, pertsonen arteko harremana aurrez aurre gauzatu barik komunikabideen bitartekotzaz gauzatuz komunitateak nola sor daitezkeen esplikatzeko (Calhoun 1991). Jatorriz nazioen

eraketa azaltzeko sortua, gaur egun mota askotako komunitateak ulertzeko erreferentzia egiten zaio Andersonen kontzeptuari. Bigarrena, are interesgarriagoa gure asmoetarako, lehenago ikusi dugun Habermasen *eremu publikoa* da. Paradoxa bada ere, kontzeptu hau oinarri nazionala zuten eremu publikoak ulertzeko sortu zen; baina hedatuagoa izan da hain zuzen ere oinarri nazional hori kolokan jartzen ari den garaian. Hartara, gehiago erabili da eremu publiko nazionalen dislokazioa ulertzeko, haien eraketa ulertzeko baino. Edozelan ere, jatorrizko kontzeptutik zein egin zaizkion kritiketatik espazio horiekin gertatzen ari dena fokatzeko proposamen berriak sortu dira, hala nola *'public sphericles'* (Cunningham 2001; Gitlin 1998), oinarri etnikoko baina hedadura globaleko komunikazio espazio mediazentriko berriak deskribatzen dituen; edo *'global private spaces'* (Slade 2006), gizarte hartzailearen testuinguruan gutxiengo diren taldeek izaera sasipribatua duten baina, aldi berean, beren eduki zein parte hartzaileen kokapenagatik, hedadura globala duten eztabaida espazioei erreferentzia eginez.

Ikerketa hauek eta beste hainbatek oro har azpimarratzen dituzten alderdietako bat honakoa da: komunikazio espazioak itxiak eta elkarren baztertzailak direlako ustearen kontra, irekiak eta iragazkorak direla. Horrela, populazio diasporikoek etengabe zeharkatzen dituzten espazioak dira, aldi berean hizkuntza unibertso eta kultura ezberdinetan parte hartuz. Jatorrizko herrialdeko telebista emanaldiak soilik kontsumitzen dituzten etorkinak eta telebista nazionala kontsumitzen duten bertakoak komunikazio espazio ezberdinetan bizi direlako ustea —beraz *beste* kultura bat, *beste* hizkuntza bat, eta *beste* nazio atxikimendu bat eduki behar dute *besteek*— bertakoen buruan soilik sartzen da; bereziki elebarrak badira. Hizkuntza hegemonikoa ikasi behar izan duen edozein hizkuntza gutxituko hiztunak, ohartun edo oharkabe, dakiena da (eta hemen hizkuntza autoktonoak eta etorkinen hizkuntzak maila berean daude) elebiduna aldi berean testuinguru eta hizkuntza ezberdinetan mugitzen dela; eta espazio itxi eta iragazgaitzen ideia pentsaezina zaio. Hau agerian geratu da komunikazio diasporikoari buruz ezagutzen ditugun ikerketa guztietan.

Beharbada ildo honetan gehien aurreratu dena Kevin Robins izan da. Aniztasun kulturalari buruz Europako Batzordearentzat zuzendu zuen txostenean (Robins 2006) aztertzen du nazioaren paradigmak nola baldintzatu dituen ez Europako Batasuneko estatuen politikak soilik, baizik gizarte zientzietako oinarri metodologikoak ere. Izan ere funtsezko kontzeptuak —hala nola gizartea, demokrazia, edota eremu publikoa— estatu nazioaren terminoetan ulertzen dira. Horrek eragotzi egin du

aniztasun transkulturalaren errealitatea modu egokian ulertzea. Craig Calhouni aipu eginez (Calhoun 1999), Robinsek azaltzen du nola naturalizat jo ohi den pertsona bat kultura *batean* bizitzea, hizkuntza *batez* mintzatzea, edo nortasun politiko *bati* atxikitzea, eta honek gaizki-ulertu ugari sorrarazten ditu. Paradigma hau, Robinsekin jarraituz, Kymlicka bezalako multikulturalismoaren teorikoen lanetan ere agertzen da. Eskema honen ordeaz, bizitza eta kultur birsorkuntza gauzatzen diren espazio publikoak bata bestearen gainean jarritako geruza (*layer*) gisa ulertzea da Robinsen proposamena. Horrela, estatu nazioak oinarrian bereziki nazioa eta lurraldea dituen espazio bat sortu du, bertan nazioaren definizioarekin bat datorren kultura bat birsortuz. Beste geruza batean, baina aurreko geruza ezabatu gabe baizik haren gainean jarrita –geruza geologiko batek aurrekoa ezabatzen ez duen moduan– aurrekotik independenteak diren espazio berriak sortzen dira; beraz lurraldetik askeak, eta nazioaren ezberdinak diren kultur erreferente, debate, edo hizkuntzak dituztenak. Era berean, eta Robinsen logikari jarraiki, esan liteke Europan diren populazio migrariak ez direla kultura *batean* bizi (nahiz eta hau transnazionala izan), transkulturetan baizik. Hots, estatu nazio bateko biztanleak, komunikabideek sortutako kultur sareei esker, aldi berean komunitate nazional ezberdinei atxikitzen zaizkien modu berean, aldi berean ere kultura ezberdinetan bizi diren pertsonen errealitatea deskribatzeko balio du transkulturalitatearen kontzeptuak; eta behatu daitezkeen jorei erreparatuz gero, errealitate gero eta zabalagoa da hau.

Modelo honetatik zenbait alderdi iruditzen zaizkigu interesgarri gure helburuetarako. Batetik, errealitate transkulturaletan gero eta jende gehiago bizi delako ideia. Bestetik, komunikazio espazio zabalen —nahiago bada, eremu publiko zabalen— sorkuntzaren ideia, espazio horiek lurraldearen menpe ez daudelarik (eta, ondorioz, ez dira estatu nazionalaren kontrolaren hain menpeko). Hirugarrenik, komunikabideei (hala tradizionaleri nola berriei) espazio hauen eraketan ematen zaien garrantzia. Eta azkenik, espazio hauek espazio nazionalen gainetik ezartzen direlako ideia, baina hauek ezabatu gabe eta hauen presio homogeneizatzaila pairatuta.

Honek guztionek balio beharko liguke, ondoko paragrafoetan, komunikazio espazio nazionalaletan gertatzen ari diren aldaketek hizkuntza gutxituen dinamikan nola eragin dezaketean hausnartzeko.

**Komunikazio
transnazionalaren
ikerkuntzatik
atera dezakegun
beste ekarpen
bat, estatu
nazioaren
paradigma
monistatik
(kultura bat,
hizkuntza bat,
politika bat)
aldendu
beharra da.**

HIZKUNTZA GUTXITUEN ERREALITATEA ULERTZEKO INPLIKAZIO BATZUK

Robinsen analisitik azpimarratu dugun lehen ideia (alegia, aniztasun transkulturala) begi bistakoena da seguruenik kultura eta hizkuntza gutxituetako biztanleentzat. Izan ere hauek, ezinbestean, beste testuinguru hegemoniko batzuetan ere bizitzera behartuta egoten dira. Transkulturalitatearen auzia, beraz, elebitasunaren auziarekin konpara liteke —seguruenik diglosiarenekin hobeto—. Hortaz, pertsona bat ez da, une batean, euskalduna soilik eta beste batean gazteleraduna soilik, unean unean darabilen elearen arabera; elebiduna da beti. Pertsona berarekin jarraituz, bere kultura osatuta dago —berrito ere, ez derrigorrez modu orekatuan— bi matriz ezberdinetatik, eta faktore ezberdinen arabera unibertso sinboliko batera zein bestera sartzeko gaitasuna garatu du. Gure iritziz, Robinsen ekarpenaren balioa honakoa da: migrariei buruzko analisi akademiko iradokitzaile baten bidez errealitate hau erakutsi izana; eta honek balio digu, orain, ispilu gisa erabiltzeko, hizkuntza gutxitu autoktonoen dinamikak ulertu nahirik.

Lurraldeari lotuta ez dauden komunikazio espazioak, neurri handi batean mediazentrikoak —komunikabideen inguruan eratuak—, estatuaren jurisdikzioaren hain menpekoak ez direnak, eta estatu nazioaren errealitatearen gainetik —baina berau desagerrarazi gabe— ezartzen direnak, ikergai izan dira honez gero hizkuntza gutxitu autoktonoen inguruko analisi zenbaitetan. Alabaina gaur egun irakurketa aberatsagoa egin dezakegu, komunikazio transnazional eta diasporikoari buruzko ikerkuntzaren argitan.

Ildo honetan, ez genuke ahaztu behar *komunikazio espazioaren* kontzeptua bera hizkuntza gutxitu autoktonoen inguruko ikerkuntzatik datorrela. Josep Gifreu ikerlari katalanak 80ko hamarkadaren amaieran proposatua da (Gifreu 1989), MacBride txostenari jarraiera logiko bat emanez. Txosten hark, Komunikazioaren eta Informazioaren Nazioarteko Ordenu Berriaren aldarrikapenaren testuinguruan, komunitate nazionalaren eraikuntzarako komunikabide sistema propioa edukitzearen garrantzia nabarmentzen zuen. Baina hark ez bezala, komunikazio politika propioa ezarriko lukeen estaturik ez duten komunitateen kasua fokatzeko Gifreuk. Kasu hauetan, komunikazio espazioa bide bat da, oraindik nahikoa botere politikoa eskuratu ez duen komunitate bere burua nazio gisa eratzeko. Ideia honek bat egiten du jadanik ikusi dugun errealitate batekin: alegia, estatuaren parte hartzerik gabe eratzeko ari diren komunikazio espazio transnazionalen eraikuntza.¹

Proposamen honen ebaluazioa egitean, handik hogeitaz urtera, egileak berak helburu honen inguruan lortutakoa baloratzen du, bere mugak ere azpimarratuz, geroago ikusiko dugun moduan (Gifreu 2009). Lorpenen artean, bere garrantziagatik, 2005ean '.cat' interneteko domeinua lortu izana da. Honi esker ICANNek estatu nazioaren definizioan ez baizik hizkuntzaren arabera definitutako domeinuak onartu zituen. Honek inplikatzeko duena da nazio lurraldean oinarrituta ez dauden komunikazio espazioen existentziaren aitortza, maila globalean. Aitortza honi esker lortu dute, geroago, beste zenbait hizkuntza komunitate gutxituak beren domeinu propioa, besteak beste euskaldunek. Lorpen honek, beste zenbaitekin batera, espazio katalanaren ibilbidearen balantze positiboa ahalbidetzen diote Gifreuri. Guri, aldiz, hizkuntzen eta beraiei euskarria ematen dieten komunikabideen inguruan eraturako komunikazio espazioen aukera ikustea; eta hau garrantzi handikoa izan daiteke hizkuntza gutxituen kasuan.

Komunikazio transnazionalaren ikerkuntzatik atera dezakegun beste ekarpen bat, estatu nazioaren paradigma monistatik (kultura *bat*, hizkuntza *bat*, politika *bat*) aldendu beharra da. Paradigma honek suposatzen ditu, historian zehar, kultur komunitate askoren bazterketa gizarte nazionalaren eraikuntzatik, bai eta eredu elebakarraren nagusitasuna. Errealitateak paradigma hau gainditzen duen neurrian (bereziki Mendebaldeko Europako estatuetan, munduko txoko askotan inoiz ez baita hegemonikoa izan), eremu publikotik zokoratuak izan ziren hizkuntzek birsorkuntzarako bide berriak aurki litzakete. Zentzu honetan, multikulturalismoaren inguruan sortutako diskurtsoek, beren muga guztiekin, hizkuntza gutxitu eta autoktonoen alde joka dezakete (Cormack 2008), aldi berean hizkuntza eta kultura ezberdinetan modu naturalean nola bizi daitekeen azpimarratzen.

Lurraldean sakabanatuta baina komunikabideei esker hizkuntzan bateratuta bizi diren komunitateen ideia ere, jadanik eremu geolinguistikoen kontzeptuarekin ikusi duguna, baliagarria izan ahal zaigu hizkuntza gutxitu askoren existentzia mehatxatzen duen fenomeno bati aurre egiteko: hiztunak hizkuntza hegemonikoaren hiztunen artean sakabanatuta bizitzea alegia.

Hizkuntza gutxitu askoren arazoa izan da, historian zehar, hiztunen sakabanaketa hizkuntza hegemonikoaren hiztunen artean. Sakabanaketa honek arrazoi ezberdinak izan ditzake (populazioen desplazamenduak, garapen ekonomikoari lotutako mugikortasun soziala, emigrazio zein immigrazio handia, eta abar), eta arazo latza da bitartekotu gabeko komunikazio sareak eratzeko. Alabaina beste izaera bat hartzen du ko-

Hizkuntza hegemonikoaren testuinguruetan sakabanatuta bizi diren —eta ondorioz hizkuntza gutxituaren erabilera aukera mugatua duten— hizkuntza gutxituetako komunitateen integrazioan lagundu ahal dute komunikabideek?

munikabideen bitartez ehundutako komunikazio espazioen kasuan. Horrela, konparagarriak iruditzen zaizkigu populazio migrari eta diasporikoek beren hizkuntzako komunikabideez egiten duten erabilera (satelite edo internet bidezko medioak) eta hizkuntza hegemonikoaren hiztunen artean bizi diren hizkuntza gutxituen hiztun sakabanatuek egin lezaketena.

Euskararen kasura etorrira, populazio elebiduna populazio elebakarraren artean oso sakabanatuta dago. Sakabanaketa honen arrazoia, gaur egun, euskararen hazkundera izan da, bereziki eskola sistemari esker gertatua. Ezin esan dugu, oro har, elebakarrek euskal eremuak okupatu dituztenik; aitzitik, joera nagusia aurkakoa izan da: euskaldunak sortu dira eremu elebakarretan (Amezaga, Arana, eta Azpillaga 2006). Horren ondorioz, Hego Euskal Herriko gaur egungo elebidunen %58 gutxiengo diren herrietan bizi dira (EUSTAT 2011; NEI 2011)². Etxeetako biztanleei erreparatzen badiegu, hiru euskaldunetatik bat baino ez da bizi denak euskaldunak diren etxeetan, duela hogeita hamar urte hirutik bi ziren bitartean (EUSTAT 2006).

Hizkuntza hegemonikoaren testuinguruetan sakabanatuta bizi diren —eta ondorioz hizkuntza gutxituaren erabilera aukera mugatua duten— hizkuntza gutxituetako komunitateen integrazioan lagundu ahal dute komunikabideek?

Kontuan hartu beharreko joera bat: jendea erlazionatzen den moduetan gertatzen ari diren aldaketa. Barry Wellmanek dioenez (Wellman 2002), gizarteko elkarrekintza gero eta gutxiago dago lotuta hurbiltasun geografikoari, eta lurraldean oinarritutako harremanetatik komunikazio gailuek bitartekotutako harremanetara igarotzen ari gara; ez soilik masa komunikazioaren arloan, baita pertsonarteko komunikazioaren eremuan ere. Joera horren aurrean, noraino har dezakegu absolututzat lurralde fisikoari lotutako *zonalde euskaldunen* eta *zonalde erdaldunen* arteko bereizketa? Izan ere, honez gero, fisikoak ez diren bestelako zonalde batzuk eratzen ari dira. Eta komunikabideak dira (unitate sozioekonomiko gisa zein tresna teknologiko gisa ulertuta) zonalde berri horien euskarri nagusia, lurraldea baino gehiago.

Balio beza galdera honek honakoa azpimarratzeko: hizkuntzaren egoera eta dinamika egokiro ulertzeko, ez da nahikoa komunikazio espazio fisikoan gertatzen direnei begiratzea; espazio ez fisikoetan (bitartekotuetan, mediazentrikoetan) geratzen direnak ere arretaz behatu beharrean gaude. Hau funtsezkoa baita informazioaren gizartean.

ONDORIOAK

I

Egindako analitika atera dezakegun lehen ondorioa ikerketaren metodologiari lotuta dago: komunikazio transnazionalaz eta populazio migra-rioren komunikazio praktikez egiten ari den ikerkuntza gero eta opa-roagoak, bere ikuspuntu ezberdinetan, lagundu egin ahal digu euskara bezalako hizkuntza gutxitu erregional edo autoktonoen errealitatea eta erronkak ulertzen. IML eta RML oso testuinguru sozial eta historiko ezberdinetan sortutako errealitateak badira ere, gauza bat partekatzen dute: estatu nazioan gertatzen denak zuzenki ukitzen ditu. Halaxe geratu izan da batzuk zein besteak gutxitasun egoeran uzteko unean. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu arlo honetan egiten ari den ikerkuntzari adi egotea. Errealitate ezberdin hauek parteka ditzaketen puntuez ohartu dira jadanik batzuei zein besteei lotutako zenbait ikerlari (Amezaga eta Arana 2012; Cheesman 2001; Cormack eta Hourigan 2007); nahiz eta, oro har, oraindik ere oso modu estankotan burutzen ari den ikerkuntza, bi bide paralelotan.

Ikerketaren osagarritasun honen adibide gisa, lurraldean sakabanatuta baina komunikabideek bateratuta dagoen komunitatearen ideia dugu. Ideia hau oso presente dago eremu publiko globalen eraikuntzaren ikerketetan —*sphericules, global private spaces, geolinguistic regions* zein nahi den moduan izendatu—, eta baliagarria izan daiteke RML egoerak eta haien aukerak atertzeko ere. Lerro hau, ikerketa lerro interesgarria izateaz gain, ekintzarako proposamenak zabaltzeko ziria ere bada, hizkuntzaren gutxitzea gainditu nahi dutenek landu beharrekoa.

Ildo honetan, komunikabideek hizkuntzen bizitasunerako duten garrantzi hazkorra azpimarratu nahi dugu. Eta ezin liteke bestela izan, informazioaren gizartearen garaian. Pertsonen arteko komunikazioa gero eta gehiago dago egitura konplexuen bitartekotzaren menpe. Eta honek esan nahi du hizkuntzen etorkizuna, neurri batean, espazio mediazentriko hauetan izango duten kokapenari lotuta dagoela.

Komunikazio transnazionalaren inguruko ikerkuntzak ematen duen beste argi bat estatu nazioaren paradigma kolokan jartzea da, ez soilik errealitate bakar gisa, baizik Robinsek aurreratzen duen ildotik, alegia analisirako metodologia gisa ere. Gure ustez, komunikazio espazio nazionalaren ideiak gehiegizko pisua izan du RMLen inguruko planteamendu analitiko zein politikoetan. Hizkuntza gutxitu hauek aztertze-ko eta politikak diseinatze-ko eredu estatu nazioarena izan da. Bera izan da baita ere, multzo honetako hizkuntza askoren kasuan —euskara barne- hizkuntza normalkuntzaren definiziorako eredu. Normalkuntza ter-

Ikusi dugun moduan estatuak bere komunikazio espazioa kontrolatzeko gero eta zailtasun gehiago baditu, gutxituaren aldeko hizkuntza politikak ere halakoxeak izango ditu, ezinbestean.

minoak berak hizkuntzarentzako egoera *normala* aldarrikatzen du. Normala izan, homogeneousazioa eta eksklusibitatea izan diren neurrian, horixe egon da, batzuetan, azken helburuan. Gaur egun ordea ikerketa ugari jartzen dute zalantzan eredu monista etorkizunean arau edo *norma* izango dela. Horrek behartu egiten gaitu gogoetatzera, berandu gabe, *normalizatzea* zer den.

Honi loturik, eta azken gogoeta gisa, ez dugu ahaztu behar komunikazio espazio nazionaletan gertatzen ari diren aldaketek hizkuntza gutxituentzako aukera berriak irudikatzen lagundu ahal digutela. Baina, aldi berean, erronka bat direla hizkuntza biziberritzeko nolabaiteko botere egitura bat —deitu erakunde, protoestatu edo etorkizuneko estatu— erabili nahi duten hizkuntza gutxituetako komunitateentzat. Izan ere hizkuntza politika eraginkor bat egin ahal izateko baldintzak eraldatzen ari dira: ikusi dugun moduan estatuak bere komunikazio espazioa kontrolatzeko gero eta zailtasun gehiago baditu, gutxituaren aldeko hizkuntza politikak ere halakoxeak izango ditu, ezinbestean. ●

OHARRAK

1. Gure argudioen aurka zera esan liteke: Kataluniak estaturik ez, baina protoestatutzat har litekeen egitura politiko eta administratiboa duela. Egia da, baina kontuan hartu beharra dago komunikazio espazio katalanaren aldeko proposamena ez zela mugatzen oraingo Printzerriaren lurraldera, eta hizkuntza espazioa hartzen zuela erreferentziaz: *Països Catalans*. Horrek komunikazio espazio transnacional batera hurbiltzen du, azken termino hori ulertzen ari garen zentzuan hartuta.

2. Bi urteko gorako populazioa. Ipar Euskal Herriko herriz herriko errolda daturik ez dago.

ERREFERENTZIAK

Amezaga, J. (2004). *Satelite bidezko nortasunak. Latinoamerikan Canal Vasco ikusten*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

— . (2007). “Geolinguistic Regions and Diasporas in the Age of Satellite Television”. *International Communication Gazette* 69 (3): 239–61.

Amezaga, J., eta E. Arana. (2012). “Minority Language Television in Europe: commonalities and differences between Regional Minority Languages and Immigrant Minority Languages”. *Zer: Revista de estudios de comunicación = Komunikazio ikasketen aldizkaria*, zenb. 32: 89–106.

Amezaga, J., E. Arana, eta P. Azpillaga. (2006). *Euskarazko hedabideak*. EHU.

Anderson, B.R.O.G. (1983). *Imagined communities : reflections on the origin and spread of nationalism*. London: Verso.

Barère-de-Vieuzac, B. (1794). *Rapport du Comité de salut public sur les idiomes*. Paris. <http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/francophonie/bare-re-rapport.htm>.

- BBC. (2011). "Multiculturalism has failed – PM", otsailak 5, atal. Politics.
<http://www.bbc.co.uk/news/uk-politics-12371994>.
- Calhoun, C. (1991). "Indirect Relationships and Imagined Communities: Large Scale Integration and the Transformation of Every Day Life". In *Social Theory for a Changing Society*, -(e)k argitaratua P. Bourdieu eta J. Coleman, 95–121. Boulder, Colorado: Westview Press.
- . (1999). "Nationalism, Political Community and the Representation of Society: Or, Why Feeling at Home is not a Substitute for Public Space." *European Journal of Social Theory* 2 (2): 217. doi:Article.
- Chalaby, J.K. (2005). "Deconstructing the transnational: a typology of cross-border television channels in Europe". *New Media & Society* 7 (2): 155–75.
- Cheesman, T. (2001). "'Old' and 'New' Lesser-Used Languages of Europe: Common Cause?". In *Language, Ethnicity and the State*, -(e)k argitaratua Camille O'Reilly, 147–65. Hampshire: Palgrave Macmillan.
<http://www.unc.edu/~lajanda/slav167EUminoritiesch8.ppt#256,1>, Language, Ethnicity, and the State: Minority Languages in the EU.
- Cormack, M. (2008). "Gaelic, the media and Scotland". In *The media in Scotland*, -(e)k argitaratua Neil Blain eta David Hutchinson, 213–26. Edinburgh University Press. <http://search.ebscohost.com/login.aspx?direct=true&db=ioh&AN=3767496&site=ehost-live>.
- Cormack, M., eta N. Hourigan, arg. (2007). *Minority Language Media. Concepts, Critiques and Case Studies*. Multilingual Matters 138. Clevedon, UK: Multilingual Matters Limited.
- Cunningham, S. (2001). "Popular Media as Public 'sphericules' for Diasporic Communities". *International Journal of Cultural Studies* 4 (2): 131–47. doi:10.1177/136787790100400201.
- Curran, J. (1991). "Rethinking the media as a public sphere". In *Communication and citizenship*, -(e)k argitaratua P. Dahlgren eta C. Sparks, 27–57. London: Routledge.
- Deutsch, K.W. (1953). *Nationalism and Social Communication*. 1966. arg. New York: MIT Press.
- . (1969). *Nationalism and Its Alternatives*. New York: Knopf.
- EUSTAT. (2006). "Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua 2006". <http://eu.eustat.es>.
- EUSTAT. (2011). "Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua 2006". <http://eu.eustat.es>.
- Extra, G., eta K. Yagmur. (2004). *Urban Multilingualism in Europe. Immigrant minority languages at home and school*. Clevedon [etc.]: Multilingual Matters Limited.
- Extramiana, C., eta P. Van Avermaet. (2008). "Politiques linguistiques

- pour les migrants adultes dans les Etats membres du Conseil de l'Europe : conclusions d'enquête". In . Strasbourg: Conseil de l'Europe. http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/Programme_MigrantsSeminar08_texts_FR.asp.
- Gifreu, J. (1989). *Comunicació i reconstrucció nacional*. Barcelona: Pòrtic.
- . 2009. "The Catalan Communicative Space: still a strategic objective". *Catalan Journal of Communication & Cultural Studies* 1 (1): 87–95. doi:10.1386/cjcs.1.1.87/7.
- Gitlin, T. (1998). "Public Sphere or Public Sphericles?". In *Media, Ritual, and Identity*, -(e)k argitaratua Elihu Katz, Tamar Liebes, eta James Curran. London ; New York: Routledge.
- Habermas, J. (1962). *Historia y crítica de la opinión pública. La transformación estructural de la vida pública*. 3. arg. Libk. 1986. Mexiko: Gustavo Gili.
- Hargreaves, M. (2010). "Citizenship Testing in the Anglophone Countries: The UK, Canada and the USA". In *From migrant to citizen : testing language, testing culture*, -(e)k argitaratua Christina Slade eta Martina Möllering, 101–24. Cambridge: Palgrave Macmillan. <http://minerva.mq.edu.au:8080/vital/access/manager/Repository/mq:9550>.
- MacBride, S. (1985). *Many Voices, One World: Communication and Society, Today and Tomorrow*. Abridged. UNESCO.
- Mackenzie, C. (2010). "Citizenship, identity, and immigration : contemporary philosophical perspectives". In *From migrant to citizen : testing language, testing culture*, -(e)k argitaratua Christina Slade eta Martina Möllering, 191–216. Cambridge: Palgrave Macmillan. <http://minerva.mq.edu.au:8080/vital/access/manager/Repository/mq:9550>.
- Martin Barbero, J. (1987). "Retos a la investigación de comunicación en América Latina". In *Procesos de comunicación y matrices de cultura*, 1980:82–97. Mexiko: FELAFACS-Gustavo Gili.
- Möllering, M. (2010). "The Changing Scope of German Citizenship: From "Guest Worker" to Citizen?". In *From migrant to citizen : testing language, testing culture*, -(e)k argitaratua Christina Slade eta Martina Möllering, 145–63. Cambridge: Palgrave Macmillan. <http://minerva.mq.edu.au:8080/vital/access/manager/Repository/mq:9550>.
- Nafarroako Estatistika Insitutuak. (2011). "Biztanleria eta etxebizintzen zentsuak 2011". <http://cfnavarra.es/estadistica>.
- Robins, K. (2006). *Challenge of Transcultural Diversities Cultural Policy And Cultural Diversity*. 1. arg. Council of Europe.
- Sanchez Carrión, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría de las lenguas*. Donostia: Txepetx/Elkar.

- Schiller, H.I. (1976). *Communication and Cultural Domination*. M.E. Sharpe.
- Schlesinger, P. (2000). "The Nation and Communicative Space". In *Media Power, Professionals, and Policies*, -(e)k argitaratua Howard Tumber. London ; New York: Routledge.
- Sinclair, J., E. Jacka, eta S. Cunningham. (1996). *New patterns in global television: peripheral vision*. Oxford University Press.
- Slade, C. (2006). "Global Private Spaces and Local Public Spheres". In *Media Communities*, -(e)k argitaratua Brigitte Hipfl eta Theo Hug, 95–121. Munster ; New York: Waxmann.
- Slade, C. eta M. Möllering. (2010). *From Migrant to Citizen: Testing Language, Testing Culture*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- The Guardian. (2010). "Angela Merkel: German multiculturalism has "utterly failed"", urriak 17. <http://www.guardian.co.uk/world/2010/oct/17/angela-merkel-german-multiculturalism-failed>.
- Tomlinson, J. (1991). *Cultural imperialism. A critical introduction*. Baltimore: The Johns Hopkins University Press.
- United Nations. (2013). *International Migration Report 2013*. New York: Population Division | Department of Economic and Social Affairs. <http://www.un.org/en/development/desa/population/publications/migration/migration-report-2013.shtml>.
- Vertovec, S. (1999). "Conceiving and researching transnationalism". *Ethnic and Racial Studies* 22 (2): 447–62.
- Wellman, B. (2002). "Little Boxes, Glocalization, and Networked Individualism". In *Digital Cities II: Computational and Sociological Approaches*, 10–25. Berlin: Springer. <http://www.chass.utoronto.ca/~wellman/publications/littleboxes/littlebox.PDF>.